A1266

altza

Irrati emisio esperimentala

Valentziako Unibertsitate Politeknikotik etorritako Jose Manuel Izquierdo ikasleak Altzako Irrati Tailerra erabili du bere lan esperimentalak aurrera eramateko.

«Esto es un esplorador» izenburupean Jose Manuelek, komunikabideek orokorrean ematen dituzten mezuak kaleko jendearen mezuekin parekatu nahi izan ditu.

Irratiaren frekuentzian *«Sobre el Mantel»* irratsaioa emitizen ari zela, Jose Manuelek, interferentzia naturalak baitliran, irratiko mezua apurtu eta kaleko mezuak tartekatu zituen.

Izquierdok bere lan hau beste komunikabideetara ere hel arazi nahi du, telebista zein irrati kate komertzialetan honelako irratsaio esperimentalek izan dezaketen eragina aztertzeko asmoz.

Jose Manuel Izquierdoren esanetan *«esperimentu honetarako eginiko lana handia izan da. Dena den, oraindik ere nire lana ez da bukatu, esperimentua Cuenca eta Castelloneko beste emisora batzutan jarraituko dut entzuleengan honek izan dezakeen eragina aurkitu arte».*

Imanol Otegi

herrera-bidebieta

Herri-Pek Garberako proiektua kritikatzen du

Herrerako Herri-Pe Auzo Elkarteak Donostiako Udalean ordezkaritza duten Alderdi Politiko guztiei eskutitz bat bidali die, Garberan egin nahi duten hipermerkatua gogor kritikatuz.

Herri-Pek argitu nahi du Garberako proiektuak harreman zuzena duela Herrera auzoarekin. *«Argi dagoena da Udal honek beti Altza sakrifikatzen duela, kontutan izanda gainera, Herrera, Larratxo eta Intxaurrondoren erdigunea dela».*

Herri-Pe nahikoa pesimista agertzen da. Udaleko ordezkariei mesedez bertako proiektuak betirako geldiaraztea eskatu die. Hala ere berren esanetan, *«badirudi ez dagoela eraikitzeko beste lekurik eta gauza aurrera joango dela. Kasu horretan, geldiezina kontrola dezazuen eskatzen dizuegu».*

Eskutitz gogor honekin amaitzeko, Herri-Pek argi utzi nahi du bere ustez, *«eraikuntza hau interes sozial eta bizitza kalitatearen kontra doala eta azken finean enpresa pribatuen interes ekonomikoak duela lehentasuna eta Udalak ere badituela interesak».*

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

INCHAUSTI DIETETIKA
Santiveri
jaki osasuntsu eta naturalak
Jose Elosegi, 120
Tfnoa.: 39 89 84

Valares
Altzariak • Dekorazioa
Liburudenda • Opariak
Larratxo Pasealekua, 14 behea
Tfnoa.: 39 14 11

jaupe
LUIS MARI JAUREGUI
liburudenda/Paperdenda
Larratxo Pasealekua, 39/Tfnoa.: 39 37 78

Auzoan bertan duzu aukera!!

TXINGURRI TABERNA
☎ 394553 Txingurri,12
HERRERA

Naiara
Oinetakoak
Euskal Herria plaza
☎ 29 26 63 Gros

ELEKTRO BAZAR
ELEKTRIZITATEA
Serapio Mugika, 8
Tfnoa.: 401060 • Bidebieta